


penakperipeziakpozak



pascalen esanetan, toki berean geldirik egoten ez jakiteak eragiten ditu gizakion zorigaitz guztiak. Baina Tomas bezalako gazte batek hain justu kontrakoa pentsa lezake, hau da, gizakion zorigaitz guztiek toki berean bertan goxo egotean dutela jatorria.

8oko hamarkadaren amaieran gaude, ikasturte akaberan, eta San Joan suak azkenean elkartu egin ditu Tomas eta Adela, baina neska familiarekin batera Bartzelonara bizitzera joatekoa da eta amodio sortu berria sua bezalaxe itzaltzeko arriskua dute. Adela handik gutxira, uztailearen 7an betetzen ditu urteak, eta Tomasek hitz eman dio bizikletaz besterik ez bada ere, egun horretan Katalunia Plazan agertuko zaiola; halaxe sortuko zaie hitzordua eta horixe iradokitzen du izenburuak: *Erantzuna haizean dabil...* Agertuko al da baten bat plazan egun horretan, ala txantxetan hartu dute? Eta, biak agertzekotan, hain zabalgunen handian ikusiko ote dute elkar?

8oko hamarkadaren amaieran gaudenez, Tomas eta Adela internet aurreko aroan bizi dira, etxean ez daukate tele-

fonorik –ezin finkorik esan, orduan saketak usaindu ere ez baitzen egiten–, kasetak entzuten dituzte... Eta, hala eta guztiz ere, internet aurreko aroa izanagatik, bazen bizitzarik. Horrexegatik guztiagatik aurkeztu nuen historia hau, Hendaian, Abbadia gaztelupean dagoen Nekatoenea egoitzako deialdira; Euskal Kultur Erakundeak, CPIE Euskal Itsasbartzerrak eta Euskal Idazleen Elkarteak proposatzen duten lau asteko egonaldira, garai hartako bizitza –batez ere gazteeigurean bizimodua nolakoa zen erakusteko asmoz. Baina idatzizko proiektuarekin batera Manu Ortegaren lanen erakusgarri bat ere aurkeztu nuen; adiskide komikilaria sorkuntzaren tandem berean bidaide izanik, bidaia kaiera bat sortzea zen xedea, lehen pertsona idatzia, freskoa, bizia.

Miguel Delibes idazleari noizbait irakurri nion nobela batek hiru baldintza bete behar dituela, hiru **p** dituela ezinbesteko: **p**ertsonaia bat (Tomas: mundulogia falta, gizarte eta politika giro nahasia, amodiorako ezintasuna, infra-sexua...), **p**asio bat (Adelarekin elkartzea) eta **pai-**

saia bat (Hendaia eta Bartzelona arteko bidea). Baina hiru **p** horiekin batera, nobela bat idazteko asmoarekin, ni laugarren **p** batekin joan nintzen Nekatoenera, **p**ribilegio sentipenarekin, alegia. Eta ezin uka hastapenetik bertatik **p**aisaiak liluratu ninduela, eta itsasoak xarmatu. Beharbada horregatik bururatu zitzaizkidan hau bezalako igarkizunak:

*Pipitaki, papataki:
goizean hamaika dorre, harresi eta gaztelu
dituen paisaia da;
baina iluntzerako denak porrokatuak,
eraitsiak eta desagertuak ditu.
Toki horren izena nork daki?*

Paisaiak lan erritmoa ezarri zidan, izan ere egunero begiratzen bainuen itsas beheara noiz zen, horren arabera hondartzan ibilaldi bat egiteko –lehorrekook eskas baitugu, eta desio, itsasoa–. Hondartzan ikusi, sentitu, eta pentsatukoarekin itzultzen nintzen Nekatoenera, lanerako gogotsu eta prest. Bestalde, nire bizialdi osoan ez dut halako langela handiosik eduki; sekula ezin izan

dut horma nire gustuko orrialde zuri amaigabe batez bete, bertan, plano edo eskema baten gisara, nire protagonistaren joan-etorriak eta ibilerak marrazteko. Eta Hendaian idatzitako zirriborroa hain zuzen ere Bartzelonan bizi den Manuri bidaltzen nion, bera zirrimarra bihurtzen has zedin. Eta batzuetan ni ere protagonistaren antzera nekatzen banintzen, oroitu egiten nuen haren lagun baten elastikoko esaldia: «Ez zait errenditzeko indarririk geratzen».

Beduinoek, basamortuan lotara erretiratzeko direnean, ez dute ahanzten handirik errimesen bat edo bidaiari galduren bat igaro daitekeela; horrexegatik, muiño batean su ttipi bat egiten dute, eta badirudi hondarrezko itsaso horretan faro bat piztu dutela; haien kanpamendura edonor heltzen dela ere, ez diote izenaz edo norabideaz galdegiten, eta galderen ordezkotortu bat eskaintzen diote; beduinoenean, bisitaria printze(sa),

preso eta poeta izango da: printzetzat hartuko dute, preso sentituko da hainbeste ohoreren artean eta, akaberan, poeta izatea egokituko zaio, zeren hitzik egokienak aukeratu beharko baititu kanpamenduko buruzagia laudatu eta gores-teko.

Horra beste hiru p eder sortzaile den edonorendako, irakurlea horrelaxe hartu nahi baitugu: printze(sa), preso eta poeta. Ziur nago irakurle fin eta erne horrek akaberan asmatu duela igarkizunaren arrapostua, izan ere hondartza baita, haurrek goizean eraiki hondarrezko dorre, harresi eta gazteluen paisaia, iluntzerako, denak ala denak ere irentsiak eta eraitsiak, bakar bat ere ez duena. Baina, esan bezala, lortuko al zuen Tomasek Mediterraneora iristea, han biluzik bainatzea, zorigaitzak akaberan zorion bihurtzea...?*

 Patxi Zubizarreta



liburu gomendatua

AZAROA

Patxi Zubizarreta

Irudiak: Manu Ortega

ERANTZUNA HAIZEAN DABIL

1987. urtea da: Sobietar Batasunak Soyuz espaziontzia orbitan jarri du; Salt Lake Cityn Theodore Kaczynskik -Unabomber- bonba bat jarri du; Ingalaterran Margaret Thatcherrek bere hirugarren eta azken agintaldia eskuratu du; Bartzelonako Hipercorren ETAK atentua egin du 21 hildako eraginez; hiri horretara bizitzera joan den Adela uztailaren 7an 18 urte beteko ditu eta liburu honetako protagonista gaztea Hendaian harantz abaituko da Uru-guaik irabaziko duen Amerikako Futbol Kopa jokatzeko ari diren bitartean. Ikasturte amaieran, San Juan suak elkartu zituen Tomas eta Adela, baina distantziak itzali egin dezake amodio sortu berria. Dena dela, Tomasek *destinu petralaren* aurrean etsi ez, eta Adela hitz eman dio bizikletaz besterik ez bada ere, Kantauri itsasoa Mediterraneoarekin lotuz, egun horretan Katalunia Plazan agertuko zaio. Halaxe sortuko zaie hitzordua eta horixe iradokitzen du izenburuak: *Erantzuna haizean dabil...* Zer gertatuko da hainbeste kilometrotan zehar? Egun horretan norbait agertuko al da helmuga-plazan?



Aldaketa
urriaren
25a
baino lehen

0506051 TXALAPARTA

160 or.

Salneurria 19,50 €

Bazkideak 15,60 €

EGILEA



Patxi Zubizarreta (Ordizia, 1964). Euskal Filologia ikasketak egin zituen eta harrezkero Gasteizen bizi da. Haur eta Gazte Literaturan ez ezik (*Eztia eta ozpina*, *Atlas sentimental*, *Pantaleon badoa*) helduen literaturan ere arrakastaz idatzi ditu hainbat liburu (*Mundua lo dagoen bitartean*, *Joan, 50*, *Laranja bat zaborretan...*). Itzulpengintzan ere jarduna da, bereziki mundu arabiarreko lanak euskaratzen (Nagib Mahfuzen *Mila eta bat gauen gauak* edota Abdela Taiaren *Salbazioko armada*). Aspaldian, literatura eta ikus-entzunezkoak uztartzeko ahaleginean, zenbait ikuskizun edo performance bideratu ditu (*Zikoinarene hegaldia*, *Hamar mezu eta dei bat...*).